



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko UZTAILA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

LITERATURA UNIBERTSALA LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bat erantzun behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

- 1.galdera, 3 puntu
- 2 galdera, 2 puntu
- 3.galdera, 3 puntu
- 4.galdera, 2 puntu

2., 3. eta 4. galderak derrigorrezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1, 3 puntos
- Pregunta 2, 2 puntos
- Pregunta 3, 3 puntos
- Pregunta 4, 2 puntos

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.

LITERATURA UNIBERTSALA LITERATURA UNIVERSAL

TEXTU

Goiz batean, loaldi aztoragarriaren ostean, Gregorio Samsa zomorro zatar bihurturik esnatu zen. Oskol gogorraren kontra atzeraka etzanik zegoen eta, burua altxatzean, bere sabel borobil eta iluna ikusi zuen, zimurdura kiribilduez beteriko irtenune azaltsuez estalita. Haien gainean labain egin eta, bere tokian egon ezinik, lurrera erortzeko zerian zegoen oheko tapakia. Hanken lodiera normalarekin konparatura harrigarriro iharrak ziren mila zango zerabilzkion dantzan, inolako harmoniarik gabe.

—Zer gertatu zait?

Ez ametsetan ari. Haren gelak, normala bestalde, nahiz eta txiki samarra izan, betiko itxura zeukan. Oihal-mostrarioa zegoen mahai gainean banatuta —Samsa merkataritzako biajantea zen—, eta aldizkari espezializatu batetik ebaki berria zirudien estanpa bat zegoen paretan zintzilika, urre-koloreko markoan sartuta. [...]

Gregoriok leihorantz begiratu zuen; lainoturik zegoen, eta leiho harreneko zinkaren gainean txist eta txost ari ziren euri tantak; horrek egundoko malenkonia sentiarazi zion.

“Beno —pentsatu zuen—; eta oraindik puska batean lo segiko banu eta zorakeria guztioz ahaztuko banintz?” Baina ezinezkoa zen, izan ere eskuin aldearen gainean lo egiten ohiturik zegoen Gregorio eta oraingo izate herriak ez zion uzten postura hori hartzen. Egiten zituen ahaleginak egiten zituela. beti bizkarrez behera geratzen zen. Behin eta herriz saiatu zen. baina alfer-alferrik: begiak itxi zituen hanka-joko nahasi hura ez ikustearren; dantzak bere hartan segitu zuen barik eta saihetsean halakoxe mintxurri arin bezain zorrotza nabaritu zuen arte, hain Zuzen ere ordura arte inoiz sentitu ez zuen min klasea.

—Bai neketsua dela nik hautatu dudan lanbidea! —esan zion bere buruari. Beti bidaiatzen. Kezkak larriagoak dira kanpoan lan egiten denean; eta bidaiak berek sortzen dituzten nekeak ere ez dira gutxi- [...]

—Hain goiz jaikitzen tontaturik nago- esan zion bere buruari—, Ez dut behar adina lo egiten. Badaude hobeto bizi diren biajanteak. Goiz erdian, eskatutakoak apuntatzeko, fondara itzultzen naizenean, patxadan eseririk gosaltzen aurkitzen ditut. Nik, daukadan buruzagiarekin, hori egingo banu. segituan despatxatuko nindukete. Baina, seguru asko, horixe litzateke gerta lekidakeen gauzarik onena. Gurasoengatik izan ez balitz, horrezkero denborak ziren al de egin nuela. [...] Gurasoei zorrak kitatzeko adina biltzen dudanean — oraindik beste bost edo sei urte—. entzun beharko dizkit epelak. Beno, baina oraingoz egin behar dudana da jaiki, trena bostetan ateratzen da eta.

Baularen gainean tik eta tak zebilen iratzargailuari tinkatu zizkion hegiak.

—Jainko laztana!— egin zuen oihu bere golkorako.

Sei eta erdiak jota zeuden, eta orratzak beren martxari jarraitzen zitzaizkion poliki-poliki Egia esateko, zazpiak laurden gutxi ziren ia-ia Erlojuak ez ote zuen jo? Ohetik garbi ikusten zen lauretarako zegoela ipinita [...] Eta gaixo dagoela esango balu, zer gertatuko litzateke? [...]

Gerentea etxera etorriko litzateke Montepioko medikua hartuta. Gurasoen aurrean egundokoak esango lituzke, Gregorioren alferkeria ahotan harturik, eta medikuaren agiriari esker edozein arrazoi atzera botako luke, harentzat gizon guztiak sano baitaude; lanari dioten beldur itxuragabea da duten gaitz bakarra. Egia esateko, kasu honetan, bere diagnostikoan ez zatekeen hain oker ibiliko. Hain loaldi luzearen ondotik artean ere erabat ase ez zuen logura apurra kenduta, oso gose bazen ere, aski ongi zegoen.



LITERATURA UNIBERTSALA LITERATURA UNIVERSAL

A AUKERA

1. Kokatu geografikoki eta kronologikoki eleberrigintza garaikidearen "Belaunaldi galdua" deritzona. Azaldu izendapen hori, agertu zen testuinguru historikoari lotuta. Aipatu hura ordezkatzan duten bi obra eta bi egile, eta azaldu labur-labur nola bideratzen duten haiek beren belaunaldiaren ezaugarri den literatura sozial edo konprometitua.
2. Identifikatu testu zatia zer literatura-obrari dagokion (izenburua, idazlea, nazionalitatea, garaia...). Kokatu liburu hori egilearen ekoizpenaren barruan. Aipatu, zure ustez, garai horretako eleberrigintzan oso adierazgarriak diren beste bi idazle.
3. Azaldu, gaingiroki, liburu honen edukia. Zein dira gai nagusiak? Kokatu liburu XX. mendeko eleberrigintzaren joeren barruan. Argudiatu zure erantzuna testuko aipamenekin.
4. Nola interpretatzen duzu esaldi honetan idazleak esaten duena?:
"...oso gose bazen ere, aski ongi zegoen."
Nola azaldu daiteke hori obraren osotasunari lotuta? Koherentea iruditzen zaizu zatia? Argudiatu zure erantzunak, eta erlazioa itzazu zeure bizipen eta iritziekin eta obraren irakurketak eragin zizun inpresio orokorrarekin.

B AUKERA

1. Humanismoaren eragina kontuan izanda, azaldu nolako aldaketak ekarri zituen Errenazimentuak munduaren eta gizakiaren kontzeptziora eta aldaketok nola islatu ziren literaturan.
2. Identifikatu testu zatia zer literatura-obrari dagokion (izenburua, idazlea, nazionalitatea, garaia...). Kokatu liburu hori egilearen ekoizpenaren barruan. Aipatu, zure ustez, garai horretako eleberrigintzan oso adierazgarriak diren beste bi idazle.
3. Azaldu, xehetasunetan sartu gabe, obra honen edukia. "Kafkiar" terminoa eskuarki erabiltzen da. Zer esanahi du? Nola erlazioa dezakezu termino hori emandako testu zatiarekin? XX. mendeko zer eleberrigintza-joerarekin identifikatzen duzu obra? Eman testuaren aipamenak zure erantzunean, adibide gisa.
4. Nola interpretatzen duzu esaldi honetan idazleak esaten duena?:
"—Zer gertatu zait?
Ez ametsetan ari..."
Nola azaldu daiteke hori obraren osotasunari lotuta? Koherentea iruditzen zaizu zatia? Argudiatu zure erantzunak, eta erlazioa itzazu zeure bizipen eta iritziekin eta obraren irakurketak eragin zizun inpresio orokorrarekin.